

ARAUTEGIAK

SASKIBALOIA

ESKUBALOIA

FUTBOLA

SASKIBALOIA

- Jokalekua: Saskibaloiko kantxa erdian jokatuko da, saski bakarrarekin.
- Jokalariak: Talde bakoitzak 3 jokalarik izango ditu kantxan, horietako 1, gutxienez, neska delarik.
- Partiduen iraupena: 10 minutuko 4 zati jokatuko dira. Azken zatian nahi beste aldaketa egin daitezke. Hutsarterik ez.
- Eraitza: Zati bakoitzean saskiratze gehien egindako taldeak puntu bat lortzen du (berdinketa izanez gero, puntu bana). Partidua amaitzean puntu gehien lortutako taldea izango da irabazlea.
- Baloia: minibasketeko baloia erabiliko da, 5 tallakoa.
- Faltak: Malgutasunez jokatuko da, eta arau-hauste bat adierazten denean azalpen labur bat emango da, batez ere lehenengo aldiz adierazitakoan. Jaurtiketako faltetan jaurtiketa libre adieraziko da. "Lutxa" zati bakoitzean txandakatuz (sakea ez duenaren taldearen alde).
- Sakea: Baloia goruntz jaurtiko da eta talde bakoitzeko jokalarik banak salto egingo dute baloia eskuratzeko. Hurrengo zatietan txandakatuz egingo da sakea.
 - Saskiratze bat jasotzerakoan taldekide batek zelaierdian pase bat eginez jarriko du baloia jokoan. Lehen pase hori ezin izango da oztopatu.

ESKUBALOIA

- Jokalekua: kantxa erdi baten (modulo bat) jokatu da bi aterekin. Ateek 1,60m altu izango dira.
- Jokalariak: Talde bakoitzak 5 jokalarik izango ditu kantxan (4 eta atezaina), horietako 2, gutxienez, neska direlarik.
- Partiden iraupena: 10 minutuko 4 azpi-zati izango dira. Zati bakoitzean atezain desberdin batek jokatu beharko du eta azken zatian nahi beste aldaketa egin daitezke.
- Eraitza: Zati bakoitzean gol gehien sartutako taldeak puntu bat lortzen du (berdinketa izanez gero, puntu bana). Partidua amaitzean puntu gehien lortutako taldea izango da irabazlea. 2 zati nagusi kontatuko dira, bakoitza 2 azpi-zatirekin.
- Baloia: benjaminentzat gomendatutako baloiarekin jokatu da, 0 edo 00 tallakoa.
- Faltak: Malgutasunez jokatu da, eta arau-hauste bat adierazten denean azalpen labur bat emango da, batez ere lehenengo aldiz adierazitakoan.
- Atezainak ezin du areatik atera. Defentsa itxiak eta mixtoak egitea debekatuta daude.
- Sakea: Zozketaz erabakiko da eta hurrengo zatietan txandaka aterako dute. Gol bat jasotzerakoan atezainak aterako du eta lehen pasea ezingo da oztopatu.

FUTBOLA

- Jokalekua: zelai erdi baten jokatuko da bi aterekin. Ateek 4m zabal eta 1,80m altu izango dira.
- Jokalariak: Talde bakoitzak 6 jokalaria izango ditu kantxan (5 eta atezaina), horietako 2, gutxienez, neska direlarik.
- Partiden iraupena: 10 minutuko 4 zati (edo 15 minutuko 3 zati?) izango dira. Zati bakoitzean atezain desberdin batek jokatu beharko du eta azken zatian nahi beste aldaketa egin daitezke.
- Eraitza: Zati bakoitzean gol gehien sartutako taldeak puntu bat lortzen du (berdinketa izanez gero, puntu bana). Partidua amaitzean puntu gehien lortutako taldea izango da irabazlea.
- Baloia: Baloia 4 tallakoa izango da.
- Faltak: Arau-hauste bat (aurkariaren aurkako ekintza arriskutsua edo eskuz ukitzea) adierazten denean azalpen labur bat emango da, batez ere lehenengo aldiz adierazitakoan.
- Sakea: Zozketaz erabakiko da eta hurrengo zatietan txandaka aterako dute. Gol bat jasotzerakoan atezainak aterako du eta lehen pasea ezingo da oztopatu.
- Ateko sakeetan lehen pasea ezin da oztopatu.

ASPEKTU PEDAGOGIKOAK

•